



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Dantzen helburua ligatzea izan da gure plazetan”

Jon Maya Seinl Dantzaria

Mundua korritu du euskal dantzak erakutsiz. Aurreku txapelketa behin eta berriro irabazi zuen. Kukai dantza taldea zuzentzen dihardu egun.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Dani Blanco

Michael Schumacher, Valentino Rossi eta Jon Maya... Zer daukazue komunean?

Kirola gustuko dugula, eta gure lanbidea ere bai. Garai batean lehiaketa franko irabazita gaudela ere esan liteke.

Zazpina lehiaketa, hain zuzen.

Hara ba, egunero ikasten da zeozer.

Ez zintudan ikusi *Fama* reality-show lehiaketan!

Ezta ikusiko ere!

Euskal dantza irakaslea zara. Zer bilatzen dute zure ikasleek?

Ikasle gaztetxoak ditudanez, ongi pasatzea. Irakasleon lana da gazte horiek dantzara “engantxatzea”, eta haiek apurka-apurka dantzan beste zerbait bilatzen joatea.

Zuk zer aurkitu zenuen?

Hain justu ondo pasatuz hasi nintzen mundu honetan barneratzen. Eta gero aurkitu ditut afizio bat, ofizioa, lagunak, neska-laguna...

Gerria okertuz dantzatzaren diren rock edota samba ez al dira askoz sexualagoak gure dantza-molde tradizionala baino?

Eszenatokietan ikusten dugun dantza kontuan hartuta bai, baina herri dantza hori baino askoz gehiago da. Jota eta porrusalda, baltsa, mazurkak, pasodobleak... Hain zuzen, dantza horien helburua ligatzea, erakartzea... izan da gure plazetan. Eszenatokiko rock eta samba ere ez dira batere erotikokoak.

Eszenatokia ez dela erotikoa?

Bai, eta oso, gainera. Esan nahi dut eszenatokira-ko egokitzen diren dantzak estilizatzaer jotzen dutela. Gure dantzei hori gertatu zaie hein batean, baina zurruntasun hori ez da gaur egun uste dugun bezainbestekoa.

Nire herrian gizonek gonarekin egiten dute dantzan. Nongoa ote naiz?

Oñatiarra ala eskoziarra?

Aitortu egin behar dizut Corpus eguneko prozesioan doazela negar malkoei ezin eutsita izaten naizela...

Dantza erritualen magia da hori. Niri San Juan bezperako soka-dantzan gertatzen zait.

Kukai dantza konpainian euskal tradizioa nahasten duzue beste estilo zein pentsamoldeekin. Barkatu tematzea: dantzariak gerria okertzeraino?

Gerria okertzeko saioa egiten dugu, nahiz eta pixka bat kostatzen direnak eta ez direnak.

Aurten, *Hnuy IIIa*... izenburuko lana taularatzen ari zarete. Joseba Sarrionandiaren testuak... dantzatuz?

Bai, eta oso-oso gustura gaude. Pozik gaude irten zaigun lanarekin eta jendearen harrera bikainarekin. Egia esan, lehengai oso onak izan ditugu lanerako. Sarriren poesia, Iñaki Salvadorren musika...

Noizko Silveiraren obrari buruzko balleta?

Orain Sarrirekin itzuli batzuk ematea egokitzen zaigu. Gero? Akaso Silveira? Zergatik ez! ■